

## Andre Dena Mariaren Assumpzioa

**A** SPALDI huntan bizitza katolikoak Andre dena Mariaren Assumpzinoko definizioa baino gertakari nabarmenagorik ikhusi eztu; behar bada. Deinizino dogmatiko bat bethi izan ohi da gauza bakhan, gogoangarri, oso guttitan gertatzen dena. Theologiaren Historian mugarri bezala jarririk agertzen zaizkigu definizio dogmatikoak. Halakotz 1950 ko Domun-Santuru eguna ere ahanzi ezina bezala geraturon da fede giristinoko historian. Beraz, dogmata definitu berriari buruz zerbait erraitea gaizki ethorriren ezteia daritzot.

Eta lehenez dogmata beraren kontzeptu zuzena ezarri beharr dugu azken gizaldietako philosophiak gai huntaz nozino berri bat hedatu bai tu, fede katolikoaz elkharr ezin diteken kontzeptu bat, alegia. Kantgandik hasi (edo gorago oraindik, Luthergan aurkhitzen bai tira desbiazino hunen haziak) eta gure egun hauietarano, bai philosophian, bai litteratur eta kultur manifestazino orotan erro sakonak oginak ditu erleginoaren eta dogmaren kontzeptu okherr hunek. Hauientzat Jakintza ta Erleginoa guztiz different dira, batak bertzearekin zer-ikhusirik eztu, ithurriburu ezberdinetik sorrithu eta bizi dira. Jakintza adimenduaren kreazino da, ezagutzea, gauzak nolakoak diren jakitea du asmo, helburu ta jo-mugatzat; gauzen objektibitate bilhatzen du. Munduko zer guztiak nolakoak diren azterrtzea, ikhustetzea, arakatzea, huná hemen bere arloa. Phainomenak ez ezik, gauzen barnea barruntatzea ere egin gogo du, ahal diteken neurrian behintzat. Hitz batekin erraiteko, Egia, Ezagutzea, huná hemen bere hesi berezia, bere zelata.

Erleginoa, berriz, bertze ithurri batetik jaio izan da, eta Jakintza ta adimenduarekin zer-ikhusirik eztu. Bihotza, sentimendu itsua, borondatea, sena, zuk nahi duzun izena jarriezozu, bainan arimaren, ahalmen itsu bat izanen da bethi hauientzat erleginoaren ithurri bakharra. Sentimendu hunen azpirazino eta joranez sorrithu ukhan ditute erlegino mota guztiak. Ahalmen itsu horrek, Jakintzaz eta adimenduaz guz-

tiz dissoziaturik, bere krezinoak moldatzen, eratzen eta antolatzen ditu. Eta dogmatak krezino hauien formulazino batzuk bertzerik ez dira. Adimenduaren gibelatik eta Jakintza alde bat utzirik egindako formulazinoak, alegia. Beraz, formula hauietan egiaren objektibitatea bilhatu edo galdegin behar ez dela erran beharrik eztago. Mundu ideal baten gosea nolabait hasetzeko eginak, formula hoik sentimenduentzat janari bat bezala dituzu, baina Jakintza-aldetik baliarik ez-tute. Bi hesi, bi zelai guztiz differentiak dituzu Jakintza-arena eta Erlegino-arena, eta gizonaren bi aktivitate hauek behin ere elkarrekin topo egin behar ez-tute, batak bertzearekin zer-ikhusirik ez-tuen-ekero. Erraite baterako edo exempla bat iben dezaguntzat, Khrista hilen artek phizberritu zela, huna hemen! fede girstinoko dokmata nagosi bat. Hori fedeari dogakon gauza da, erlegino-arena. Zurre bihotzak, joranak sorrtu du dogmata hori, bihotzari janari ta bihi emaiteko bdezko ta haukerako duzu, baina arren! erlegino-aren eta bihotzaren hesi hortatik ez nehora eramane. Historiak eta Jakintzak Khristo phiztu zenik ez-takite, gehiago oraindik ar-buiazten dute; bere existentzia historiko osoa ere ukhatzen dute; baina hori gorabehera, erleginoak bere beharrikizunetarako sorrtu dituen formula oik erabil ditzake, bethi Jakintza-aren zelaira ez eramaiteko kondizinoarekin, ordean...

Eliza Katholikoak bi arlo hauien bereizte eta dissoziazio hori ezin onharr dezake. Gure dogmatak egia objektiboak ez baldin ba dira, ezer ere ez-tira. Adimenduaren argia du gizonak gidari bezala; beraz sentimenduak, borondateak, bihotzak berak ere argi horren beharra du, eta argi horrek onhetsi ez-tarona okherr da, eta gezurra da. Sentimendu religiosuak itsu-aitzineko bezala adimenduaren argia ez-tue-nean, erhokeri ta zentzungabekeriez berterik sorrtzen ez-titu. Egia, objektibitatea bethi cinharritzat eta zimendutzat har-turik, Eliza Katholikoak bere dogmatak erakusten ditu, eta eta dogmata hauek Jakintza-aldetik eta Historiaren arloan are balorea dute, beren thokia dute, demonstra, proba ta ziurpe ditezke. Erlegino Katholikoak Jakintza-aren bildurr' ez-ta, etxe sendoa bai litzen bezala jaso da, lurr joko ez-tu Jesusen errana da: Ekhaizaren erasoek Eliza hondatuko ez-tute (Mt. 16, 18).

Beraz, Erromako Aita Sainduak Andre Dena Mariaren Assumpzioaren definitzean, Ama Birgina gorputz eta arimaz zeruetara jaso izan zela erakhutsi du; eta gauza hori jakintzaren eta Historiaren arloan edo zelaian ere egia da, hala da. Ezta sentimenduak edo bihotzak asmatutako amets zoroa, Historian gerthatutako gerthakari egiazko baizik. Andre dena Maria, ordean orain dela bi mila urthe bizi zan lurrean; haren zerura jasotea ere garai hartako gerthakari historiko bat da; bainan egia hori jorain definitzeak, orain asmatu gauza dela uste ukhateko ez othe du bide emaiten? Ez, gauzak ongi begiratzen ba dira. Izarr berri bat aurkhitu duen astronomuak izarr hori kreatzen eztu, izarra existitzen zan, orzean zegoen, gük ikhusten ezpa genuen ere. Andre dena Mariaren Assumpzioa egia zan Aita Sainduak definitu aitinetik. Hala ere, izarraren eta astronomuaren komparazio hori eztathorr hemen berririk ezpa tzekiten; Ama Birginaren Assumpzioa, berriz, girstinoek ezagutzen, sinhisten eta aithortzen genuen, eta Aita Sainduak egia hori definitzean bere eskubide osoarekin sendotu, baieztu ta sagaratu bertzerik egin eztu.

Jainkoaren Revelazio da fede girstinoko dogmaten ithurrburu. Jesukhristo Jainkoaren Seme gizon egindakoak zerutik lurrera ekharritako erakhutsi jainkozkoak osatzen dute Revelazioaren altxor edo ondasuntegi hori, girstinoek sinhisten dugun fedea, mundu huntako ilhunpe artetik pausuk zerura zuzen ditzaguntzat emana izan zaikun argi zoragarria. Banan Khristok bere Revelazioa etzeraukon gizonari Khristok Eliza bat sorrithu zuen, sozietate baten gisan, eta Eliza huni konstituzino hierarkhiko bat eman zeraukon. Eliza huni, bere artzain eta zuzendarien bitarrez, Revelazionaren zaintzeko missinoa agindu zeraukon. Elizak, bada, mundua mundu dadino egiteko handi horren bethetzeko daduka, Khristoren erakhutsiak khutsurik gabe, bat ere nahasi gabe gorde, deklaratu ta erakhustea, Beraz, Elisako Artzain edo Zuzendariak beren eskubide eta eginkizunen artean hunako haur dadukate: Khristoren, erakhutsien deklaratzea, girstinoek zer sinhistu beharr duten auktoritatez erabakitzea. Hain zuzen ere, Eliza-Irakaskintza edo Magisteria deitzen den Institutzioa hunetrakoxe ezarririk da.

Khristok erran etzuen: horr dituzue Liburu Sainduak, Biblia eskutan harr, irakhurr eta horttik athera dezazuena sinhits

ezazue. Hori egin beharrean, Khristok Apostoluek haukeratu zituen eta Berak zerutik ekharri missino berbera Apostolu hauiei eman zerauen, bere eskubideak eman zerauzten, bai hauiei eta bai hauien ondorengoei, mundua buka dadin arte. **"Ni Aitak egorri nauen bezala, nik ere zuek egorritzen zaituztet"** (Jo 20, 21). . . . **"Zuek entzuten zituztenak, ni neroni entzuten nau"** (Lc. 10, 16). **"...ezpa du ordean Eliza ere nahi aditu, eduk ezazu pagano eta publikano batentzat"** (Mt 18, 17) **"Eman izan zait niri ahal guzia zeruan eta lurrean, Zoazte beraz, eta erakhas ezatzue populu guziak, bathaiatzen dituzuela Aitarren, eta Semearen eta Ispiritu Sainduaren izenean; Erakhas ten diotzuetelarik begiratzen nik manatu darozkitzuetadan guziak. Eta huna non zuekin naizen mendeek dirauteno"**. (Mt 28, 18-20) (1). Hauk bai hitz gozok, erran-nahi handi bethekoak, hitz mardul giharrtsuak, arima itxasoko aizeak bezala lasaitzen eta bozkarioz bethetzen duten hitzek! Eliza Katholikoaren **"Carta Magna"**, bezala dituzu. Elizaren indefektibilitatea, haur da, Eliza behin ere hondaturen ezte la, galduren ezte la, eta egiaren erakhusteko bere eginkizun horretan huts eginen ezte la dakharre erraiean hitz hoiek. **"Eta huna non zuekin naizen mendeek dirauteno"**... Noloko ziurrtasun, optimismu ta fidantza beheq emaiten deraukon girstinoari Khristoren hitz hunek!...


Revelazioaren zaintzeko ta deklaratzeko Khristok Elizan utzi zuen Institutuzino authentikoak Erromako Aita Sainduagan du bere Buru, gailur, Irakasle nagosi Jondoni Petriren ondorengo. Hamabi Apostoluen buruzagi huni eskutan eman zerauzkion Khristok Elizari buruzko eskubide denak: **"Bada nik zuri erraiten darotzut ezen Piarres zarela, eta harrí horren gainean jarriko dutala ene Eliza, eta ifernuko atheak etzaizkola hari garaituko. Eta zuri emanen darozkitzut zeruetako erresumako giltzak eta zer nahi esteka dezazun lurraren gainean, eta hura estekatua izanen da zeruan ere; eta zer nahi desloth dezazun lurraren gainean, eta hura deslothua izanen da zeruan ere"** (Mt. 16, 18-19).

Eta Jondoni Petri ta bere ondorengoan eskubide artean fedeari dagozkionak sinhisteari buruzkoak sarritzen dira. Hor-tarakotz, Aita Sainduak, fedeari dagokon zer bat bere esku-bide osoz erabakitzen duen bakhoitzean, hutsezina dela, infalibilea dela sinhisten dugu. Bainan hori gizon ergel baten

apoteosis egitea ez othe dateke gero? Gizona berez erorkorr, gezurr eta okherrera makhurrtua delarik, guk gezurraz arantz iphinten bai tugu. Bai, Aita Saindu berez erorkorra da, gizon guztiak bezala, guk hori ba dakigu, guk hori aithorrtzen dugu. Bainan Khristoren laguntza eta agintza dela bide, Aita Sainduak fedeko aietan Eliza osoari eskubide guztiaz eta obligazinoz sinhistu beharr den egia bat erakhusten deraukonean (eta orduan bakharrik), hutsezina, infaliblea da, hortharakotz Jainkoak eusten bai terauko. Gogora Jesusen hitz ederr hura: "Huna non zuekin naizen mendeek diraute-no". Bai eta: "Simon Joanesen semea... bazka zaitzu ene ardiak" (Jó 21, 17) Nere ardiak zain itzazu, bazka larre onetara zuzen otzazu, beharr gaixtoetatik gorde ta begiratzen dituzula. Eginkizun hauk, ordean, Erromako Aita Sainduak nola betheko ditu eta Eliza haren erranetara nola egonen da, bera okherrean eta gezurrean eroriko etzelako ziurrtasunik izanen ezpa genuke?...

(jarraituko da)

VILLASANTE KORTABITARTE'tar L. A.



*Allá en el Pirineo mora el pueblo más viejo de la tierra, cuya legislación es la más grande porque es la más humana, la más libre y la única que supo reverenciar los derechos del hombre.*

Tomás OTAEGUI